

# Askatasuna European

**PAUL** A. Samuelson munduan den ekonomilar ezagunenetakoa da, bai idatzi dituen obragatik, bai irabazi zuen Nobel Sariagatik. Valencian izan berria da, eta bertan egin duen zenbait adierazpen ezin hobeto datorkit, azaldu nahi duan gaiari hasiera emateko. Samuelsonek zera esan du. Jugoeslavia zazpi Estadutan banatu daiteke. Estatu berri horiek, halere, aurrera irten daitezke, baldin beren ekonomia merkatuaren bideetara zuzentzen badute. Baina ez da hori bakarrik Samuelsonek esan omen duena: Euskadik ere, bere buruaren jabe izatera iristen bada eta Estatu libre bilakatu, aurrera atera dezake bere ekonomia, Europako merkatu libre eta zabalean gogor jokatuz.

Egia esan, ni neroni ere iritzi horretakoa naiz, baita Samuelsoni entzun aurretik ere. Ez da, ordea, batere gaizki etortzen hain gizon aditu eta ospetsuarekin, zerbaitetan, gogaide edo irizpen berdineko gertatzea.

### Mamuk eta azak

Gure Herriak bere Estatu aske eta propioa izan dezan nahi dugunoi, gauza asko jaurtitzen dizkigute handik eta hemendik. Hemendikakoak bi hautatuko ditut. Gehienbat PNVtik eta Ardanzaren ingurutik datozten kontrako arrazoiak dira.

«Ez gaude gu, inolaz ere, Estatu bat hemen, Euskadin, eraikitzeko politikaren alde» zioen Azua jaunak. «Ez gaude atzera begira, XIXgn. mendera begira». Irteera honek aintzakotzak hartzerik ere ez luke mereziko, datorren lekutik ez baletor. Hizkera honen bidez, PNVk hartu duen bidearekin zuzentzen da. Errejionalismoa da bere estraategia. Espainian integraturik eraman nahi du Euskadi Europara. Zuritu egin behar, nolazpait, jendearen aurrean bere jokabidea. Eta mamu bat atera du airera, hari kolpe guztiak emateko. Mamu hori estadia da. Mamu itxura du, izan ere, PNVk XIXgn. mendeko estadiaren irudia altxatzen digu begien aurrera. Mamua da, eta ez besterik, ez delako hori gure Herriarentzat

abertzaleok nahi dugun erakunde politikoa:

Ez diezaiozun jendeari iruzur egin, mamuak astinduz. Aldiz, askoz hobe ideiak argi eta garbi azaltzen saiatzea. Estadia, herri edo komunitate historiko batek norberarentzat hartzen duen erakunde politikoa da. Erakunde politikoa bidez eta indarrez hartzen ditu erabakiak komunikatate historikoak. Bistan da, estatu deritzan erakunde

## ERREJIONALISMOA DA PNV-REN ESTRATEGIA. ESPAINIAN INTEGRATURIK ERAMAN NAHI DU EUSKADI EUROPARA.

izatez aldakorra dela. Europari gagozkiolarik, Estaduaren egitekoak eta ahalmenak, funtzioak eta botereak, aldaketa handia egin dute XIXgn. mendetik XXgn. mendera. Eta XXIgn. mendean, berriz, inork ez daki, Europak ze forma eta erakunde politikoa hartuko duen.

Haatik, Europa herri eta komunitate historikoek osatzen dute. Hauek eutsi egingo diote soberaniari. Europa nolazpaiteko erakunde federala bilakatuko dela, dirudi. Europakideak komunitate historikoak izango dira. Lerro hauei jarraituz uler daiteke norantz dihoazen abertzaleon helburuak, independentzia eta estatu propioa eskatzen dugunean. Ze ikusi dauka asmo honek XIXgn. mendera begira egotearekin?

### Independentzia-ezaren kostuak

Azalandareak landatzeko behar al genuen independentzia, bota zuen Arzalluz-ek. Nolako galderak halako erantzuna ekarri ohi duelako, nik galdera honela jaurtitzen dut: ze galera ekar ditzake Euskalerrarentzat independentzia ezak

edo, beste aldera, zernolako onurak eskura ditzakeen, baldin European Estadukide izatera iritsiko bagina.

Barne Merkatu Bakarra urte batean burutuko da. Bertan barrena, merkantziak, zerbitzuak, kapitalak eta pertsonak, mugetako trabarik gabe, ibiliko dira. Autonomia izan, estadukide izan, merkatuaren legeak berdintsu eraman beharko ditugu. Merkatu Bakarraren gainetik, ordea, Europako Batasuna eraiki nahi da. Batasun politikoa eta monetario-ekonomikoa.

Estadukideek politika ekonomikoaren tresna asko mantendu egingo dituzte. Egia da, moneta politika Banku Zentralen Sistemak eramango duela. Baina, beste zenbait alorretan, esaterako aurrekontu politikan, nazioek autonomia zabala gordeko dute. Ongizate ekonomiarik dagokionez edo, esan nahi badugu, politika sozial alorrean, estaduki eta gizarte bakoitzak bere politika egin beharko du. Beraz, guk geronek erabaki beharko dugu ze ongizate maila, ze politika sozial, nahi dugun euskal gizartearentzat. Beste adibide zehatz bat emateko, Euskalerririk, Europako estadukide izatea lortzean, zuzeneko harremanak izango ditu Europa Komunitatearekin. Eta Bruxelesek banatzen dituen diru laguntza estrukturalak guk geronek jasoko, Madrilek gaurregun ezartzen dituen mugak eta baldintzak jasan gabe.

Samuelsonek esan du aurrera irten gintezkeela, Europaren baitan, merkatuaren lehiaketan gogor ekiteko prest bagaude. Ziur naiz, ondoko beste baldintza bat ere ezarri digula. Alegia, estadukide bihurtzeko ekarriko lizkigukeen botza, eginbide eta lanak zuzen erabiltzeko gauza izatea.

Eta, egia esan, ez da makala hemen sortzen den galdera andana.

### GURUTZ ANSOLA

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIETAKO LEHENDAKARI OHIA

# Misionest berri Algeriako

**HARRITURIK** nago, zer aipamenak dituzten Algeriako hauteskundeek. Zerk ekartzen ditu bada Europearrak, hauteskunde hoiei horrela interesatzerat? Independentzia lortuz geroz hauteskunde libreak dituztela lehen aldia delakotz? Gauza bera gertatu da jaz Afrika beltzeko erresuma zenbeitetan, hala nola Bolikostan. Ez du te, hurbiltzekorik ere horrelako arrakastarik izan. Bizkitartean, Houphouet Boigny hango lehendakaria, deputatu izanda da Frantziar, 1947tik 1960arte, eta zenbeit urtez, estado ministro.

Islamistek? Ez dut erranen ezetz. Baina demokrazian garenez geroz, herriak Islamistak hautatzen baldin baditu, nor gara gu kontra egiteko?

% 25 baizik ez dutela egiten? Hocine Ait Ahmedek gehiengo izan balu % 25ekin, nork zer

erranen zuen? Eta hauteskunde sistima hori, ez ote diete hain zuzen Frantzia eta Ingalaterrako demokrazia zaharrek emana?

Duela zenbeit urte 'Afrikako Salbaiten Zuhurtzia' liburua idatzi nuelarik, norbaitek galdetu zuen artikulu batetan, zertara zihoazen misionestak Afrikara, ez ote zituzten jende haiek beren sinestean utzi behar.

Nago, ez ote den misionest arraza berri bat sortu. Misionest berriek irakatsi nahi diete hango salbaia gaixoei, zein den hautu politikoa egokia haientzat. Ezkerrekoek erranen diete, emaztekiek begitarteak agerian behar duela. Le Penek berak gomendatzen die demokraziako legeak errespetatu ditzaten. Dakizuen bezela, Le Penek demokratikoki baitzituen torturatu eta tiroz garbitu Algeriarrak duela 30 bat urte. Non ziren orduan misionest horiek denak? Batzu ala besteentzat Mahometar erlijioa ez zuen kalitate

terik ez zen, duela zenbait urte. Nahiz berek ez duten erlijiorik, orain erranen dizute Mahometar moeta bat baino gehiago badela, eta zein den populu atzeratu horiek hautatu behar luketena.


Horiek denak, hemendik, alki eder batetan jarririk. Hango jende askok, urte oso bat bizitzeko daukaten dirua baino gehiago balio duen alki batetan.

Eta hango miseriak egiten balu FISen arrakasta? Eta guk beharko baginu xuhurkiago bizi, haiek hobekiago egiteko? Mundu honetako aberastasunak hobeki banatuak izaiteko, haiek beren parte izaiteko, haien petrolio, prezio double pagatu behar baginu, eta gure berebilak erdi preziotan saldu haiei?

### XIPRI ARBELBIDE

KAZETARIA

# BERRIAK ZIRI



**JOSE ANTONIO ARDANZA**  
EAEko lehendakaria  
EL MUNDO

«Gero eta gutxiago

kezakaten nau Gobernu zentralaren jokabideak»



**PEPE URRUNUELA**  
Abokatu  
NAVARRA HOY

«Segurtasunagatik askatasuna

kentzen digute»



**JOAN TRIADU**  
Kritikoa eta pedagogoa  
LA VANGUARDIA

«Beharrezkoa litzateke legeak

aldatzea, katalana eskubidea izateaz gain betebeharra ere izatea ahalbideratzeko. Hizkuntzek ez dute irauten eskubide hutsa izanda»



**FERMIN EZKURRA**  
Osasunako lehendakaria  
DIARIO DE NAVARRA

«Ez dago urduri jarri

beharrik. Oso lasai nago, ez dudalako

# ZAKILIXUT

© Olariagak

